

Sagardoa txotxetik

Nere lantxo au argitaratzerako, gure sagardotegiak irikiak izango dira. San Sebastianak pasa ezker, ez da izango giro upel zaar oien ondoan. Danok on-zaleak geran ezker, laister bereziko ditugu gogozkoenak.

Txirrita zana ere Andoain'era bertsoetara etorri zan batean, mutiko bati galdetu omen zion sagardorik onena nun zegon.

Mutikoak:

-Peñanian.

Ta Txirritak:

-Txarra izaten dek, ba, or geienan.

Esaera zaarrak dio: «Berritan, danak onak». Txotxeko denboran ere, sagardo geienak onak dira. Gero izaten dira komeriak.

Gauz bat jarri zaigu txarra: sagardotegira jira oso garesti. Emengo sagastiak bakandu ziran. Jaungoikoak dakin lekutik sagarra ekarrita, ezin mama merkerik erten.

Len merkenak ziranak ta zerbait lezaken jendeak aintzakotzat artzen etzitun gauzak jarri zaizkigu garestiena. Adibidez: bakalloa. Sagardotegirako janari berezia dan arren, ezin leike ekarri musu-truke. Ez orixe.

1953'an, bertsotan asi berria nintzalarik, eraman ninduten lenengo aldiz erriko talde batek Astigarraga'ko Mendiola sagardotegira. Ondo gogoan daukat arrats ura ere. Naiko bakallo jan, naiko aragi erre jan, naiko sagardo edan, da kontu guztia berrogei ta zazpina pezeta genduan.

Bertsotan ere jardun nintzan. Nola ez? Gogoan det, gizon serio samar batek zer kontseju eman zizkidan: Bertsotan ondo egiten nula. Baiña bertsolari on oiekin da plazara ez ertetzeko, bide ortatik alperkerira eta zabarkerira jotzen zala-ta.

«Zenbat buru, ainbat aburu». Baiña gizon aren esanari ez nion kaso aundirik egingo. Geroztik bazter prankotan iritxi gera beintzat. Nola-baiteko pranko kantatu ere bai. Ta damurik ez det bide artan asia ta gizon ari kasorik ez egiña.

Beste onelako arrazoi batzuk ere entzun izan ditugu: «Bertsoetatik inor ez dek aberastu». Egi aundia. Ta lanetik zenbat aberastu dira, ba? Ta derrior aberastu egin bear al da? Sagardotegi batean umore ederrean dabilena baiño aberatsago nor da?

Bearbada, zu, irakurle, etzera iritzi

ortakoa.

. Errespetatzen zaitut. Sagardotegian egokitzen bagera, berriz itzegingo degu.

O zer aukera etorri zaigun uxatzeko egarriak, grazi aparta berekin baidu upeleko edariak.

Jende-illarak ikusi leizke ordena ederren jarriak, oraindik ere maite ditugu gure sagardotegiak.

Arrautzarekin bakallaoa, gero aragi errea, intxaurra berriz ortxe daukagu oso postre dotorea.

Upel batetik bestera errez izan liteke aldea, kafe ondoren artutzen dana ez da izaten ohea.

Nere iritiz nik egin ditut sagardoan aitormenak, gero bakoitzak juzka dezala nun edan ditun onenak. Sagardo-bidez aztu ditzagun gorrotoak eta penak, nere ustetan oiek ditugu billerarik politenak.

Txomin GARMENDIA

DV 20/1/1988